

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

175

AGINDUA, 2022ko abenduaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Babila» Haur Hezkuntzako, ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Bilboko «Babila» Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularrak hasarazitako espedienteaz aztertu da, zeinaren bidez Haur Hezkuntzako 1. zikloko 0-1 urte bitarteko haurrentzako unitate bat 1-2 urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzeko baimena eskatzen duen.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin dituzte txostenak.

Arau hauek ikusi dira: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko ikastetxe pribatuen baimenei buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 131/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, (martxoaren 12ko BOE) apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duena; 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxienezko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) (azaroaren 19ko EHAA), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ondoren zehazten den ikastetxeari baimena ematen zaio, 2022-2023 ikasturtetik aurrera, Haur Hezkuntzako 1. zikloko 0-1 urte bitarteko haurrentzako unitate bat 1-2 urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzeko:

Kode zenbakiak: 015918 eta 48019791
Izen generikoa: Haur Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua
Izen espezifikoak: «Babila»
Titularra: Bibala 2122, S.L.
Helbidea: Garellano 17
Udalerrria: Bilbao
Lurralde historikoa: Bizkaia

Baimena: Haur Hezkuntzako 1. zikloko 0-1 urte bitarteko haurrentzako unitate bat 1-2 urte bitarteko haurrentzako unitate bihurtzea.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 6 unitate, honako edukierakoak:

- Unitate bat 0-1 urte bitarteko haurrentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa.
- 4 unitate 1-2 urte bitarteko haurrentzat, 13 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.
- Unitate bat 2-3 urte bitarteko haurrentzat, 18 ikaspostuko edukierakoa.

2. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erakuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 22a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.